

KATEGORIA: HELDUAK

IZENBURUA: "AINHOA"

"AINHOA"

Bilbo, 2013ko urriaren 23a

Kaixo Josu:

Gaueko 11 etatik ohean etzanda banago ere ezin dut lorik hartu, eta egongelako erlojuak 5ak jo dituean zuri idaztea erabaki dut.

Gaurtxe bertan sei hilabete bete dira Itxaso etxetik joan zenetik, geure alabatxo ta biok bere hutsunearekin utziz.

Azken gutunean esaten nizunez, Ainhoaren jaiotzetik Itxasok ez zuen onartu alaba "ezberdin" izateagatik sortutako egoera berria. Egia esan, saiatu ere ez zuen egin. Azken urteetan zehar bere inguruan eraikita zuen mundu miragarria guztiz puskatu zuen Ainhoaren ailegaerak, eta berak, perfektotasunaren ereduia izan nahi zuenak, kristalezko mundu hori txikituta ikusi zuen. Gizajoa. Lehenago inbidiazkoak ziren begiradak erruki bihurtuak jasotzeak ia etxetik ez irtetzera behartu zuen, eta errugabeko neskatoa bere arazo guztien errudutzat hartzen hasi zen.

Azkenean, eztabaida eta tirabiraz betetako egun piloa pasa ondoren, eta egoera jasan ezean, ultimatuma bota zidan: Ainhoa zentru batean ez barneratuz gero etxetik joango litzateke. Neu, erdian nengoen, gure arteko amodioaren geratzen zena salbatzen eta Ainhoari gure alboan eta maitasunez egindako etorkizun bat ematen saiatzen. Berak hartutako jarreratik ateratzeko asmoz, eta ideia oso argi ta finkaturik izatearen itxura eman nahian, aukeratzekotan, Ainhoarekin geratuko nintzatekela erantzun nion. Saiatu baina alferrik. Itxasok bai zeukala argi, eta joan egin zen.

Ondorengo egunetan lur jota ibili nintzen leku batetik bestera, zer egin jakin gabe.

Oporrak aurreratu behar izan nituen nire buru eta bizimodu berria argitu eta antolatzeko. Zorionez, lagun baten aholkuak emaitza eman zuen eta Administrazioak emandako dirulaguntzaz nire lanorduetan Ainhoa zaintzeko pertsona bat kontratatu

dut. Horri, eta, batez ere, Ainhoak eskaintzen didan maitasunari esker, Itxasoren joanak sartu ninduen zulotik poliki irtetzen ari naiz.

Orain dela hiru egun, gutxirarte nire ametsetako emakumea zenak dibortzioa onar dezadan eskatzen dit...eta e-mail baten bidez! Sinestezina egiten zait hainbat urtetan zehar elkar ezagutu gabe elkarrekin bizi izan garela pentsatzea. Gure legezko egoera konponduz gutaz lehenbailehen ahaztea nahi duela ematen du. Ez diot trabarik ipiniko...

Baina, dagoeneko, honek guztiak berdin dit, Ainhoaz arduratzeko baino ezer gehiagorako gai ez naizelako.

Argitzen ari da eta utziko zaitut gaurkoz. Bion gosaria prestatzeko ordua da, eta ez dakizu ze gosez altzitzen den goizero! Gosez eta alaitsu, eta egunez egun eskeintzen didan zoriontatsun horrek bete eta zoriondu egiten nau. Toperaino.

Beno, Josu, gure arteko azken hizketan azaldu zenidan bidaia egiten baduzu gertatu den guztia zehazkiago jabetzeaz aparte, Ainhoa ze polita dagoen ikusteko aukera izango duzu.

Ordurarte, bion besarkada bero bat jaso, lagun.

Peru